

## 1. SARRERA: HISTORIA, IZENA ETA IZANA:



***“Ez naiz sorburu, ez naiz helmuga, ez naiz uraren ertzean negar egiten zuen errota zahar hura.***

***Banaiz erronka, banaiz zubi, banaiz IBAI ZABAL, Arestiren itsasoa amesten duen errekarri zapal. Elikatzen naute Kantauriko kresalak eta Anbotoko Mariren begiradak, eta Artzeren iturriak indartzen dizkit taupadak.***

***Nik, harrizko erro honek, Bizkaiko Sortaldeko berben oihartzuna ehotzen dut egunero, Memaiatik Elexalderaino, Urkuletatik Andaparriraino, Larreatik Urkiolaraino, eta sustraiak eta hegoak josten dizkiet hurreratzen zaizkidan errotariei. Josiko dizkizut, orain, zeuri?”***

**Naroa Ogando**

Lekeitioko Naroa Ogando euskal filologo euskaltzaleak maisuki deskribatzen digu zein den Ibaizabal ikastolaren arima. Ibaizabal, ez da “sorburu”, haurtzaroa, haurtzaroko ikastola; ez da “helmuga”, helduaroa, mundua; Ibaizabal ikastola, biak lotzen dituen zubia da, pausoa ematen laguntzen diguna. Ibaizabal ikastola derrigorrezko hezkuntza etapak Batxilerra eta Goi mailako Lanbide Heziketarekin zubia egin eta lotu asmoz orain ia hogeitun urte Bizkaiko ekialdeko ikastolek sortutako proiektu sendoa da egun. 34 ikaslerekin hasi zen ikastola, gaur egun ia 300 ikasleko errealitate bihurtu da. Bere hormetan, “Bizkaiko Sortaldeko berbakera ezberdinen oihartzuna ehotzen da egunero”. Naroak toponimiaren bidez, Ibaizabal ikastola besarkatzen duten lurak, ikasleen jatorriarekin eta Bizkaiera ezberdinekin lotzen ditu: “Kantauriko kresalak eta Anbotoko Mariren begirada” Kostaldeko (Lekeitio, Ondarroa) eta Durangaldeko ikasleak kokatzen ditu. “Memaiatik Elexalderaino, Urkuletatik Andaparriraino,

Larreatik Urkiolaraino” toponimiaren bidez (Memaia-Elorrio, Elexalde-Galdakao, Urkuleta-Durango eta inguruko herriak, Andaparri itsas muturra-Lekeitio eta Ondarroa, Urkiola-Durango eta inguruko herriak), jatorrizko herrietako ikastola sortzaileak gogoratzen ditu Naroak.

Ibaizabal “*Errota zahar*” dela gogoratzen digu, Juan Mari Lekuona + Xabier Lete eta Lourdes Iriondo zen “Ez dot hamairu” taldeak abestutako “Nondik gatozen” bertsoetik ateratako berba izanik:

*Errota zahar maitea  
uraren ertzean,  
uraren ertzean da  
basati beltzean:  
negar egiten dezu  
alea txetzean,  
ni ere triste nabil  
zutaz oroitzean.*

Gaur egun Ibaizabaleko eraikina aintzinako **errota** zahar batean oinarrituta dago eta hau, aspaldidanik enpresa desberdinen egoitza izan da. 1920ko hamarkadan, gaur egun Logroñon dagoen Ramoncin kortxo-egile enpresa frantsesaren gune izan zen.



Argazkia: Gerediaga elkarte

Enpresa Durangotik Tolosara mugitu zen gerra ostean eta Rosario Imaz andreak eraikin horretan ERROTA martxan jarri zuen, Undagoitiakoerrota, Undagoitia izena zeraman etxea zelako. Eta horretarako, aurreko enpresak utzitako ur kanalaz baliatu zen.

Errota bera 20-25 urtez lanean aritu zen. Gerra osteko garaiak izaki, janari eskasia nabarmena zen eta gari eta arto produkzioa ingurutako baserrietan ere urria.

Hala ere, Undagoitiako errota Rosario Imazek Valladolideko gobernadorearekin zuen harremana zela eta, oso ondo funtzionatu zuen eta berehala aberastu zen. Gerra ondoren Bizkaian zabalik mantendu zen errota bakarra izan baitzen Durangoko hau. Aberastasun horren adierazle dira harrizko horma sendoekin egindako ubidearen kanalizazioa, etxe aurreko lorategi eta pasealekua...



Argazkia: Errota ostatu aterpetxea

Rosario Imaz, trenak San Faustoko pasoa harrapatuta hil zen eta harrezkero errota geratu egin zen. Errota ondoren okindegi industrialak zabalduta ziren.

eraikinean baina honek ez zuen luzaroan iraun. Ondoren, behi ustiapenerako ere erabili zen Undagoitia etxea.



Argazkia: Gerediaga elkarte

1975. urtetik aurrera punta-puntako gimnasio bihurtu zen, Tenis, Squash eta Paddel-eko kantxa eta guzti.

1999ko maiatzean eraikina erostea erabaki zuten klandestinitatean sortu ziren Durango, Elorrio, Ondarroa, Lekeitio eta Zornotzako ikastola kooperatiba historikoek (Kurutzia, Txintxirri, Zubi Zaharra, Azkue eta Andra Mari ikastolek, hurrenez hurren) eta esfortzu handia egin zuten erosketa eta berreraikitze horretan partikularren babesarekin (Andoni Mujika, Antton Maria Aldekoaotalora, Kepa Arrinda, Ermuako Anaitasuna ikastolako guraso elkarte, Urtun Gerrikaetxebarria, Unai Z, “Di-Da enpresa, “Ekin Koop Elkarte” gogoratzea ezinbestekoa da.

Hasieratik garbi zegoen errotaren egitura, ondare moduan zuen garrantziagatik, mantendu beharra zegoela. Ahalegin eta lan handiaren ostean, 2000.urtean ERROTA ostatua irekitzea lortu zen Ibaizabal proiektuaren sostengu ekonomiko zein zerbitzu izaera indartzeko helburuarekin.



Argazkia: Errota ostatu/aterpetxea

Izan ere, esan beharra dago Euskal Herriko Kultur Ondarearen Zerrenda Nagusian sartzeko proposatua izandakoa da 2006an.



Adituek diotenez, errota honen balio handiena, bere garairako erabiltzen zuen teknologia aitzindaria dela.

Garai batean gimnasio izandakoa txukundu, makina guztiak berritu eta gimnasio berri bat ireki zen. Kirol errota izena hartuz eta gaur egun ostatuaren osagarri bezala erabiltzen da.



Hirugarren solairuan berriz Errotagaina ostatua atondu zen. Horren arrazoia, Durangon, ostatu mailan hutsunea ikusi zela.

Ostatuak 9 gela ditu. Ohe bakarreko gela bi eta 7 bikoitz. Guztiak ere komun, telebista, eta behar bezala txukunduta eta berriztatuta izan dira 2016ko udan.





Talde handiek laugarren solairuan hartzen dute ostatu, aterpetxean hain justu. Aterpetxea taldeentzako pentsatuta dago; Durangaldera datozen antzerki, dantza, musika edo kirol taldeentzako. Aterpetxeak bi gela handi ditu, guztira 20 oherekin osatua.



Naroa Ogandoren poemara bueltatuz, argi dago guztiz sakona dela, eta erabiltzen dituen berbak ez dira edonolakoak. Gure oroimenean dauden eta egongo diren euskal idazle, bertsolari eta abeslarien berbak uztartzen ditu.

Esateko, “Artzeren iturria” (Joxanton Artze, hil berri den poeta) ikastolen izaerarekin lotzen ditu:

*“Iturri zaharretik edaten dut, ur berria edaten, beti berri den ura, betiko iturri Zaharretik”.*

*“Hizkuntza bat ez da galtzen ez dakitenek ikasten ez dutelako, dakitenek hitz egiten ez dutelako baizik”.*

“Harrizko erro honek”, Gabriel Arestiren (Harrizko herri hau), herri-erro-sustrai-euskal arimatik sortutako ikastolak kokatzen ditu.



Bestetik, “Bizkaiko Sortaldeko berben oihartzuna”, Bizkaia maite: “zure berbaren oihartzuna” (Jose Angel Irigarai, Benito Lertxundi). Ibaizabal ikastolan, Bizkaiko ekialdeko herri-euskara ezberdinak entzuten direla azpimarratzen du.

Gure helburu ikasleak dira, aipatutako dituen “errotariak”.

“Sustraiak eta hegoak josi” adierazterakoan, “sustraiak”, Euskal Herria eta euskara barrutik ezagutzeko; “hegoak”, mundura zabaltzeko; “hegoak josi”, ikasle bakoitzaren neurrira, irakasleak bidelagun dituztela, laguntzaile beti.

“Josiko dizkizut, orain, zeuri?” → Gonbita, ikastolen proiektuan murgiltzeko eta gurera etorri zaitezten.

Gonbidatuta zaudete!!!

Poema honek Ibaizabalen izana eta izana, arima sinbolizatzen du, Naroa Ogandok bere maitasun eta barne sakontasun guztiarekin eskaini digularik. Eskerrik asko, Naroa, bihotzez.

Zuzendaritza taldea